

# ORMAETXEA “ORIXE”, N. [1991]: *Idazlan guztiak*

[Donostia], Eusko Jauriaritza / Etor Argitaletxea

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.  
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 1 (1993), p. 209-212  
ISSN -  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Gure kultur historiaren zaleon pozetarako, berrikitan behin eta berriz kaleratu dira hainbat euskal autoreren “idazlan guztiak”. Are estimagarriagoa da argialetxeen ahalegin hori —orain urte batzuk bestelakorik gertatu bada ere—, azken edizio hauek ez baitiote inori apenas dirurik ekarri.

Besteak beste, bost liburuki mardulean datorren Orixe-ren obra oso honek badu —tamainaz, eta kalitatez ere— berezitasunik franko, hemen, RIEV/RIEBn alegia, lehenbaitlehen ohar bat bederen eskain diezaiogun.

Barka biezagu irakurleak lehen oharkizun ez hain goitar bat: bost liburukitan 5.344 orrialde ematen ditu argitalpenak, gehienetan testu trinkoan eta baita oso trinkoan ere. Norbaitek idatzi du, alajainetan! Lehenik, Orixe-k, noski, baina baita haren obraren gain lan egin dutenek ere.

Izan ere, *Idazlan guztiak* honen ezaugarrietako bat horixe baita: autore bilduaren lanak dakartza, baina horiekin batera baita idazle hari eta beraren idazlanei buruz burutu diren ikerlan eta azterlanak ere. Aberastasun bikoitza du, beraz, edizio honek.

Orixe-ren beraren obra lehenengo hiru liburukietan bildu da: I. *Sorkuntzazkoak*. II. *Itzulpenak*. III. *Artikulu eta saiakerak*. Orexatarraren lana gutxi-asko ezagutzen genuenontzat ere, mundu berri bat agertu da orain, hirugarren liburuki horrekin batipat. Ez gaude, beraz, lehenagotik egindako Orixe-ren argitalpen “osoen” maila berean, haiek, besterik gabe, zerbait hobetu eta osatuz alegia.

Lehen liburukiak Orixe-ren prosa eta poesia jaso ditu: *Barne-Muinetan* (1934), *Euskaldunak* (1935/1950), baina baita sakabanaturik zebiltzan olerkiak ere; gaztelaniazko itzulpen eta guzti dator poesia hau (600en bat orrialde). Hitz-lauzkoak ere hor datoz: *Santa Kruz apaiza* (1929), *Quito'n arrebarekin* (1950-1954) eta hilondoko *Jainkoaren billa* (1971), etab.

Denok gogoratzen dugunez, emankorra izan genuen Orixe, ez jatorrizko bere idazlanetan bakarrik, baita inorenak itzultzen ere. Gure itzultzaile handi eta berezietakoa izan genuen bera. Lekukotzat, ez dago ikusi besterik: *Mireio* (prosa poetikoz emana, 1930), *Tormes'ko Itsu-mutilla* (1929) edo *Agustin Gurenaren Aitorkezunak* (1956), *Urte guziko Meza-Bezperak* (1950: edizio honetatik kanpo geratu dena), etab. Orixe-ren itzulpenak zinezko sorkariak ziren, jatorrizkotik euskarara birsortuak: holakoetan hizkuntza eta eskuak guztiz libreak zituen gure Orixe-k. Hain libreak ezen gai izan zen bertsoen neurrietara lotuz ere itzultzeko. Hemen dago orain haren sormenaren ondarea, itzulpen-lanetarako eredu hautagarri bezala.

Hirugarren liburukiak kasik ustegabeen harrapatu gaitu: berreskuratu diren ehundaka artikulu hauek, berritasunez beteta ageri zaizkigu eta idazlearen aurpegi-alde ezezagun edo oso gutxi ezagun bat eskaintzen digute. Denetik dago ia lauhun artikulutako bilduma honetan:

Filosofia, Literatura, Hizkuntzalaritza, Folklore, Erljioa, Politika, Pedagogia nahiz Soziologia. Orixe-ren harrobitik moeta orotako harlandurik sortu zen. Inoiz argitara eman gabeko lanek ere iritsi da oraingoa liburuki honetako orrialdeetara, honela Orixe-ren *Idazlan guztiak* jasota uzteko.

Laugarren eta bosgarren liburukiek beste asmo bateko lanak dakartzate argitara: ikertzaileen lanak dira hauetakoak. Hirugarrenean lankidego zabala bildu da: 20 ikertzaileen lumetik 27 lan bildu ahal izan dira, denak ere Orixeren obra eta pertsonaren inguruan dihardutenak. Argitalpena babestu duten Erakundeetako ahotsarekin batera (J. Arregi, I. Murua), Orixe-ren bizitza aztertzen dutenak datoz (P. Iztueta, P. Altuna; J. M. Aranalde), zegokion lekumen historikoa eman diotenak (L. Otaegi, P. Charriton), nahiz pentsamendua (L. Akesolo, X. Andonegi, I. Aldekoa) edo obra orijinala aztertu dituztenak (J. Garmendia: etnologia; J. Kortazar, S. Onaindia, J. A. Arrieta: estilistika; L. M. Mujika, j. Azurmendi: literatur baliabideak; J. M. Lekuona, J. Otaegi: oleria; L. Villasante, P. Iztueta: fede-bizipenak); eta ez da falta itzulpen-lanei eta hizkuntzazkoei begiratu dionik (X. Mendiguren; P. Goenaga, J. M. Etxeberria). Iker-bilduma eder honi esker, Orixe-k, bere belaunaldiko lagunekin batera amestu zuen Unibertsitate- zereginetara iristen da euskara, eta Orixe beraren obra aztertuz, hain zuzen. Hilondoko garaipena era bada hau, Orixe zenarentzat. Idazlearen obraren inguruko gure ezagumenduak jaso eta eguneratzeko liburu bazterrezina gertatuko da, gaur gero, laugarren liburukia.

Bosgarrenarekin, *Orixe eta bere garaia*, beste molde bateko ikerlan batera heltzen gara. Aurrekoak lan monografikoak ziren, bakoitzari berean zabaltasunik falta ez bazitzaion ere; bosgarrenean, oster, ikuspuntu sozio-historiko "orohartzaile" batetik ekiten dio lanari Paulo Iztueta autoreak. Liburuki hau hiru partetan banaturik ageri zaigu: bizitza, Orixe bere inguru sozialarekin, Orixe mistikaria, ia 1.500 orrialde bete-betetan. Hamabost egunetan egunero zortzi ordutako irakurgaia eman didan lan honetaz, xehetasunetan sartu gabe, bizpahiru baieztapen borobil egingo ditut (eta ziur nago ez dela ausarkeria): inoiz euskal idazle edo pertsonaia euskaldun bati eskaini zaion biografiarik onena aurkituko du irakurleak bosgarren liburukiaren bigarren partean (*Orixe eta gizarte-ingurua. (Azterketa soziologikoa)*) dio tituluak). Bildu diren albisteengatik, metodologiaz eta euskal ikazkeraz obra zinez heldua da hau. Orixe barru-barruan duela, Aro Modernoko euskal kulturaren historia sozial orokor baten lehen idazketa dela esango nuke. Askok geratzen da, ziurki, zabaltzeko eta xehatzeko, baina orain artean horrelakorik egi-teke zegoen, eta oraindik urratu beharko da biderik azken sintesira iritsi aurretik; hala ere, lanaren lerro nagusienak (seguraski ez denak) markatuta daude, eta kasu askotan luze landuta ere bai.

Beraz, bi balio handi aurkitu dizkiot *Idazlan guztiak* deritzan argitalpen honi: a) Berreskuratu dugu, azkenik, Orixe bere osoan, eta b) Berori aitzaki dela, Eusko Pinkundeko mundu lausoa Historiaren eguzki-argitara ekarri zaigu. Orixe irabazi dugu, baina baita bere garaia ere, neurri eder ezohizko batean. Argitalpen honek dakartzan ekarpenak hain baliozkoak izanik, ez noa orain kritikaren txikieria puztiletan sartzera. Bego, ba, esandakoa bere horretan.

Adierazi nahi nukeena argitzeko, lerro hauek irakurriko ez dizkidaten erdal irakurleei zer gogoratu nahiko niekeen esango dizut: batez ere historilariak balira, aurrerantzean, euskal kulturaren historiak ezingo dela hitz egin argitalpen honen orrialdeetatik xurgatu eta berorrek erakutsi digun euskarazko iturrien baliagarritasuna ezagutu gabe.

1992-09-09

Joseba Intxausti